

HERNANIK kronika

2004 urtea
Ekainak 10
Osteguna
Alea: 1134
www.kronika.net

Koruak, zikiro jatea eta kontzertuak bihar, Ereñotzun San Antonio jaia hasteko

■ Aurreneko gaua, Mal de Ojo eta Laiotz musika taldeek girotuko dute ■ Gaueko 00:30etan Preso, errefuxiatu eta deportatuei omenaldia egingo zaie ■ Larunbat arratsaldean 'Kuadrillen arteko desapiyu' 19:00etan.

GAUR botako dituzte Ereñotzun festa hasierako etxefuegoak, baina, biharkit astelehenera izango dira ekitaldiak. Aurtengo San Antonio jaiek baditzutzen zenbait nobedade: batetik, Ereñotzun, aspaldiko partez, zikiro jatea egingo da ostiral gaelean plazan, eta jai batzordeak 100 lagun inguru biltzea espero dute. Bestetik, larunbat arratsaldean auzotarrak Kuadrillen arteko desapiyu egingo dute. Bestalde, eta hau da hirugarren nobedade nagusia, bost mendiako egun pasa ofizializatu dute auzoan: Oindi, Adarra, Agiña, Urdaburu eta Arrondo. 30 km inguruko mendi buelta da. Zenbait apustu eta markagatik egin da auzoan ezaguna eta izugarrizko bistak dituen buelta da. Joan den igandean egin zen eta koadrila polita bildu zen. Hemendik aurrera San Antonio aurreko asteburu an egiteko asmoa dute.

Bost musika talde

Aurten ere Ereñotzuko jaietan ez da musika aukerarik faltako, bost talde arituko baitira ostiralek astelehenera. Ostiralean, Mal de Ojo eta Laiotzkin gaupasa izango da. Larunbatean Izotzek joko du, auzoko taldeak. Igan-



Mal de Ojo taldea. Jon Mari Beasain ereñotzuarra (ezkerrean) badaki zer den auzoan jotzea.

dean erromeria izango da Tapia eta Leturiarekin; astelehenean berriz, Epelde eta Larrañaga arituko dira Ugaldetxon.

Haur jaialdia larunbatean

San Antoniotan, umeak izaten dira protagonista larunbat arratsaldean eta aurten ere haur jaialdia egingo dute futbol zelaian. Antolatzaillek ume zein gurasoak animatu dituzte disfrutatua joatera, eta iragarri dute mozorrork onenarentzat saria ere izango dela. Ondorenean txokolate beroa denentzat.

Igandea San Antonio eguna

Normalean igandea izaten da

festa egunik beteena eta aurten San Antonio eguna bera igandea egokitzen da. Goizeko 08:00etan eta 10:30etan Meza Nagusia izango da. Goizean, txistulariak eta trikitilariak ibiliko dira kale jiran, eta Ttarlak dantza saioa eskainiko du. Eguerdi aldera, sagardo probaketa eta herri kirolak izango dira. Arratsaldean, berriz, bertso jaialdia eta erromeria Tapia eta Leturiarekin. Igandean, Bola txapelketa ere izango da goiz eta arratsalde.

Irubidieta eta Ugaldetxon astelehenean

San Antoniotan Ugaldetxo eta Irubidieta tarte berezia

izaten dute urtero: Irubidieta goizean eta Ugaldetxon arratsaldean. Pelota Txapeldutako finalak, Bola, Unai Agirre eta Sorozabal bertsolariak, eta Epelde eta Larrañaga trikitilariak izango dira datorren astelehenean. □

Musika egunero

Mal de Ojo, Izotz, Laiotz, eta Tapia eta Leturia, eta Epelde eta Larrañaga

Sagardo probaketa igandean

Elorribi, Iparragirre, Elutxeta, Otsuenea, Eizmendi, Larregain eta Goiko Lastaola

Bertsolariak igande eta astelehenean

Maialen Lujanbio, Joxe Agirre, Jexux Mari Irazu, Amets Arzallus, Xabier Silveira eta Aitor Mendiluze. Jokin Sorozabal eta Unai Agirre Irubidieta eta Ugaldetxon astelehenean.

Herri kirolak igandean

Aizkolariak Bihurri eta Flores, eta Harri-jasotzaileak Joseba Ostolaza eta Landarbide.

PLENOA GAUR

Atseginegin aparkaleku hartze aukera zabaldu

ATSEGINEGIN lur azpiko aparkaleku hartze aukera zabala-goa izango da gaurtik, Plenoak Gobernuaren proposamena onartzen badu. Orain arte, zentroan bizi zirenak, bertan aktibitatea zutenak eta abar zuten lehentasuna. Oraindik, ordea, 150-160 aparkaleku 100 inguru daude hartuta. Orain, aukera zabaldu egingo da gelditzen diren plazak bete arte.

Bestalde, Udalak eta patronatuek 2003ko aurrekontuen likidazioak onartuko dituzte gaurko Plenoan. 18:00etan da. □

Lau pabeiloi egiteko lizentzia eskaerak

GOBERNU Batzarrak lau pabeiloi egiteko lizentzia eskaerak aztertuko ditu gaur arratsaldean. Bi pabeiloi Akarregin joango lirateke, beste bat Irurenan eta laugarrrena Lastaolan, Ubisek eskatuta.


Gobernu Batzarrak aktibitate industrialarekin lotutako beste puntu bat ere aztertuko du. Robolan Ingenieria Robotica S.L.k Ibaiondon makinaria sortzeko eskaera egin baitu.

Gaurko bilerako azkeneko gaia enpleoa bultatzeko puntu bat da, Inem eta Udalbatzaren artean enplegua bultatzeko hitzarmenerako dirulaguntza eskaera hain zuen ere. □

Alcohólico anonimoen

Nazioarteko Eguna

ALKOHOLIKO Anonimoen Nazioarteko Eguna da gaur. Hernanin, Santa Barbara taldea ari da lan horretan, eta Sandiusterri behean biltzen dira: astelehen eta ostiraletan 20:00etan terapia egiten dute; ostegunetan, 20:00etan, bilera informatiboak eta irekiak egiten dira; asteazkenetan, berriz, 19:30etan guraso taldea biltzen da. Tel: 943-331103, est. 566. □



Ereñotzuko koadrila Oindin igandean, bost menditako ibilaldian.

TXILIBITA TABERNA Ereñotzu auzoa - 943 33 60 61
San Antoniotan hamaketatakoak eta bazkariak, ematen ditugu.
Ondo pasa San Antonio jaia!

XX MUS TXAPELKETA TRALAR TABERNA
21:00etan 3-4 postuak:
Martin-Urtzi / Manolo-Jesus
22:00etan: MARSEL magoaren ikuskizuna.
23:00etan Finala:
Andoni-Juanma / Aritz - Urko
FINALAK gaur, osteguna

Lirain GAZTE JAZKERA
Udaberri udako moda
Lanamendi Kalea, 9 Tel: 943 553 949

DORRONSORO OKINDEGIA
Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsoro Okindegia, S.L

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Jatorrizko familiar arazoak dituzten haurrak hartzeko kanpaina jarri du martxan Diputazioak

■ Familietatik apartatuta bizi diren haurrak etxearen hartzera animatzea da asmoa.

DIPUTAZIOA *Ume bat zain daukazu* kanpaina ezagutarazten ari da eta asmoa da familiak animatzea jatorrizko familiar arazoak izan dituzten haurrak, eta hauetatik aparte bizi diren haurrak, etxearen hartzera. Diputazioak dio asko direla une larriak bizi izan dituzten familiak eta nahiz eta Diputazioak dituen neurri guztiak hartzera haurrak familietatik apartatua behar izaten dituztela, beste erremediorik ezean.

Familiaren babesia

Diputazioak dio haurrak ondo eboluzionatu eta hazteko be-

harrezko duela afektibitatea eta segurtasuna emango dion familia bat. Horretarako harrera familiak (haurrak etxearen hartzeko familiak) bilatzen ari da Diputazioa, baina, argi utzi nahi du haurra hartuko duen familiak ez duela haurraren jatorrizko familia ordezkatzen. Programa hau haurraren familiako arazoak konpondu bitarteko neurria da.

Diputazioak dio, Gipuzkoan familia beharrean dauden haur gehienak bi urtetik gorako egoaldiak egiten dituztela. Eta haur gehienak 18 urte bete arte, eta hortik aurrera ere bai, etxearen

hartu dituzten familia hauekin geratzea erabakitzentzu dutela.

Diputazioaren laguntza

Programa honetan Diputazioaren lana da haurra, jatorrizko familia eta harrera familiaren arteko bitartekaria izatea. Honekin batera psikologo eta hezitzale talde bat dago harrera familia, haurra eta jatorrizko familiaren zerbitzura.

Informazioa nahi duenak 943 48 26 38 telefonora deitu dezake edo interneten web orri hau bisitatu: www.gipuzkoa.net/familiarrera. □

HITZ BITAN



Iazko mus txapelketa ere jende askok jarraitu zuen.

✓ MUSA

Aralarreko finala eta Marsel magoa gaur. Aralar tabernako mus txapelketa amaierara iritsi da eta gaur jokatuko dira azkeneko 2 partidak. Iluntzeko 21:00etan 3 eta 4garren postuak erabakitzeko partida jokatuko dira: Martin-Urtzi/Manolo-Jesus. Gaueko 22:00etan Marsel Magoen ikuskizuna izango da eta gaueko 23:00etan finala: Andoni-Juanma/Aritz-Urko.

✓ EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

HZak afari merienda antolatu du biharko. Hauteskundeen gaiari amaiera emateko Herritarren Zerrendak afari-merienda antolatu du. Menua 7 eurotan jarriko dute: sardinak, txorizo, patata tortilla, sagardoa, ardoa, kafea, kopa eta puroa. Txartelak Garinen daude salgai. Zita bihar ostirala, arratsaldeko 19:00etan Tilosetan.

✓ FUTBOLA

Urteko bazkaria egingo dute larunbatean. CD Hernanik urteko bazkaria eta festa egingo du larunbatean. Bazkaria Aginagan egingo dute eguerdiko 14:00etan eta bertan kirol talde ezberdinak jokalari onenari plaka emango diote: bola, atletismoa, pelota eta futbola.

✓ TANBORRADA

Helduen tanborradako ensaioak gaur. Helduen tanborradako ensaioak hasiko dira gaur eta datorren astean segiko dute. Zita arratsaldeko 20:00etan da Santa Barbara elkartean.

✓ OLIO BILTZAIA

Sukaldeko olioia eta gai bereziak reziklatzeko aukera. Gaur arratsaldean gai bereziak eta sukaldetan sortzen den olioia reziklatu ahal izango da. Arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara Urbietako kalean. □



Elkartzenek bonobusa sortzea proposatzen du.

ELKARTZENEK salatu du bidegabeara dela garraio publikoak, bereziki autobus urdin eta gorriak, hernaniar askori suposatzen dion kostua. Arazoari konponbidea emateko bonobusa sortzea proposatzen dute eta bilera deitu dute gaiari buruz hitz egiteko: ekainaren 15ean izango da, arratsaldeko 20:00etan Biterin.

Elkartzenek adierazi du hernaniar askok egunean 2 aldiz (4 biaje) erabiltzen dituztela garraiobide hauetak, eta astean 5 egunez egin ezkerro 76 euroko kostua suposatzen duela. Gutxienean soldataren (460 euro) %16,5a.

Elkartzenek salatu du instituzioek zergetako milioiak gas-tatzen dituztela garraio azpiegitura erraldoietan eta hauetak ez

direla behar orokorrean hurbildu ere egiten, "bai ordea enpresen interes ekonomikotara". Garraio publikoaren alde egitea beharrezko dela diote, "politikarien garapen jasan-gaitzaz hitz egiten dutenean" eta eskatzen dute "bidegabekeria legal hau arinduko duen neurriak hartzea". □

➔ JASOTA BEZALA

Apartheid laguntxo alferrei maitasunez
Ditxosozko hauteskunde kanpaina hau dela eta, ARALAR-ek bi pankarta jarri zituen Galarretako errotondan kotxeek ikusteko moduan. Orain bakarra ikus daiteke bigarrenaren gainean "apartheid" dioen beste bat jarrita dagoelako.

Hori egin duten laguntxoek ez dute ezta gurea kentzeko lanik hartzera ere; zuzenean gainean jarri eta kitto. Zertarako lan gehiago? Ulertzen dugu kanpainak estresa sortzen duela eta denok korrika eta presaka ibiltzen garela. Bainan, tira, ezkerreko alderdien propaganda saboteatzekotan, gutxienez

ondo egin behar dela pensatzen dugu. Hernaniko beste toki batzuetan norbaitek bai hartzera duela gure propaganda desagertarazteko benetako lana. Horiek bai langile finak! Eta ez Galarreran ibili zirenak bezain alferrak! □

**Ernesto Merino
ARALARren izenean**

EUROPARA BERRIRO


Zatoz gurekin



JOSÉ BORRELL

europa2004.psoe.es

Ekainaren 13an
Eman
botoa



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberri
Urbietako 7
☎ 943 552941
- Gauez: Urbistondo
Lasarte. San Francisco 1B
☎ 943 366567

IRAGARKI MERKEAK

Langile autonomoa behar dugu, janari denden lan egiteko. Deitu: 657 79 29 48
Opel Corsa salgai. Turbo Diesel. Egoera onean. ITVa pasa berria. Deitu: 652 70 72 15
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertsbra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Santa Barbara 42)

euskal herria europan

[beste europa bat posible delako]

Eman botoa
Herrien Europaren alde



Partido Socialista de Andalucía
Esquerra Republicana de Catalunya



euskal alkartasuna
euskal sozialdemokrazia

www.euskoalkartasuna.org

IKASLEEN

7. zenbakia

2004ko ekainaren 10a

LANGILE IKASTOLA

FERNANDO MORILLO - IDAZLEA

“Libre eta independientea izatea gustatzen zait”

Maider Gonzalez-
Alba Gonzalez
LANGILE IKASTOLA

Kontatuko al diguzu zure bizi-
tza? Non jaio zinen, non bizi
zaren...

Azpeitin jaio nintzen, fisika ikasi
nuen baina liburuak idaztetik bizi
naiz, motxila hartu eta toki batetik
bestera ibiltzea gustatzen zait.
Orain, Galiziako Pontevedran bizi
naiz.

Zer dela eta hasi zinen idazten?
Maitemindu nintzen batean,
neskari poesia bat idatzi nahi
izan nion eta ezin nuela kontura-
tu nintzen, orduan euskara sa-
kontzea erabaki nuen eta gra-
matika ikasten hasi nintzen.
Aurrera jarraitu nuen eta nire
barruan zeuden ideiak kanpora-
tzeko bide ezin hobea zela ikusi
nuenez idazten jarraitza eraba-
ki nuen.

**Nondik ateratzen dituzu idazte-
ko ideiak?**

Personen istorioak idazten ditut.
Inguruan ditudanen elkarriketak
entzuten ditut, beti "radarra" jarri-
ta edukitzen dut. Askotan, bene-
tan gauza xelebreak izaten dira.
Egun batean mutil batek neska
bati kontatzen zizkion pasarte
intimoak entzun nituen eta nobe-
laren batean agertuko dira, izena
aldatuta noski.

**Txikiton gustatzen zitzaiun
idaztea?**

Ez, irakurtzea gustatzen zitzaidan
eta idazten geroago hasi nintzen.

**Liburuetako gaiak zure gazta-
rokoak al dira?**

Ez, asmatuak dira.

**Idatzi dituzun liburu denak
gure adinekoentzat al dira?**



Fernando eta Langile ikastolako ikasleen elkarriketa, liburutegian.

Gehienak bai, baina helduentzat
ere idazten ditut.

**Zein liburu argitaratu zenuen
lehenengo?**

Bila nazatela izan zen lehenengo
idatzi nuen liburua.

**Zein da idatzitako libururik
gogokoena?**

Denak berdintsu. Bila nazatela,
lehenengoa izan zenez gehiago
gustatu zitzaidan, baina bestela
zaila da esatea.

Zein saldu da gehien?

Gehien saldu dena, Ortzadarra
sutan izan dela iruditzen zait.

Bestalde, Izañ Malkoak eta Bila
nazatela ere ondo saldu direla
uste dut.

**Asko bidaiatu al duzu zure
liburuei esker?**

Niri bidaiatzea asko gustatzen
zait, baina liburuei esker oso
gutxi.

**Kalean jendeak ezagutzen al
zaitu?**

Ez, bakarrik nire izena ezagutzen
dute.

**Famatuia izatea atsegin al
duzu?**

Ez naiz oso famatua, beraz ano-
nimatua gordetzen dut.

**Zure liburuetan askotan aipa-
tzan duzu sexua, zergatik?**

Sexua, eskuistik heltzea, begira-
tzea, ikuiztea... hori dena da, eta
adin hauetan normala da gai hori
interesatzea. Hizkuntzarik ede-
rrenetarikoa dela uste dut.

**Ordenagailuak ere askotan
aipatzan dituzu, zergatik?**

Asko pozten nau zuek nire libu-
ruak ondo ulertu dituzu jakite-
ak, hori izaten da nire helburua,
hizkuntza egokia erabilteza.

**Zenbat denbora behar izaten
duzu liburu bat idazteko?**

Ez daukat denbora jakinik, batzu-
tan egunero aritzen naiz, beste
batzutan ordea, hasi eta beste
batekin jarraitzen dut. Sei hilabe-
te-edo behar izaten dut bat buka-
tzezo.

**Idazteaz gain, zeintzuk dira
zure zaletasunak?**

Bidaiatzea, mendira joatea,
xakea, bizikletan ibiltzea...

**Une honetan ari al zara beste
nobelaren bat idazten?**

Bai, ari naiz zerbaite egiten baina
oraindik haseran nago.

**Zuk irakurtzerakoan, zer nola-
ko gaiak dituzu gogoko?**

Garai batean abenturazkoak, fan-
tasiazkoak nituen gogoko, orain
poliziakoak, misteriozkoak eta
irakurtzen ditut. Euskaraz era
horretako nobelak idazteko
gogoa dut, ez dakit noiz ordea.

**Liburuak idaztetik bizi al daite-
ke?**

Ez horretatik bakarrik, sari batzuk
ere irabazi ditut, eta hainbat bes-
telako lan ere egina naiz.

**Zure libururen bat itzuli al dute
beste hizkuntzaren batera?**

Oraintxe itzuli dut bat gaztelera
baina ez dakit argitaratuko dida-
ten.

**Beste nobelaren batean liatuko
al dira Isuzko eta Nerea?**

Jarraipena egiten badut seguru
baitz.

Guri zure liburuak asko gusta-
tu zaizkigu eta ondo ulertu ditugu.

Jarra dezazula nahiko genuke. □

Maider

POESIAK

Maider Gonzalez - Alba Gonzalez
LANGILE IKASTOLA

Urrun zaude eta ni
nigarrez
gertu zaudenean
kasorik ez. Zergatik?
Zergatik ezin dugu
aspaldian izan genuen
maitasuna
bilatu?

Nire bizitzak izan duen
pertsonarik
garrantzitsuena zara.
Nire bizitzako unerik
onenak zurekin izan

dira. Eta berriz
errepikatzeko
esperantza bilatzen
hasia naiz.

Aurkituko ote?

Zure bikotekide izan
nahiko nuke.

Egun hori iristean nire
penak joango dira,
zu nire ondoan
zaudelako

Etxeko tximini ondoan
goxo-goxo
leihora begiratu eta
txori bat pausatu da
Elurra ari du.

Txoria geldi-geldi dago

hantxe

Elurra ari du.

Hilik dagoela konturatu
naiz

Hotzaren hotzez joan
da

Elurra ari du

Alba

FERNANDO MORILLOREN LIBURUEN AIPAMENA

Sexua, sentimenduak, informatika...

Maider Gonzalez eta Alba Gonzalez
LANGILE IKASTOLA

FERNANDOREN liburuak benetan
interesgarriak izan dira, gustora iraku-
rri ditugu, errazak iruditu zaizkigu.
Gomendagarriak!

Gai desberdinak jorratzen ditu no-
beletan: sexua, sentimenduak, pen-
tsakera desberdinak, informatika, pu-
bertaroko arazo eta korapiloak. Liburu
hauek irakurrita zu ere oso normala
zarela ikusten duzu, zuri gertatzen
zaizkizun gauzak agertzen dira isto-

rioetan. Irakurtzea gustatzen ez zaio-
nari ere atseginak egin zaizkio Fernan-
doren nobelak.

Ondoren guk irakurri ditugun
bere liburuuen izenburuak aipatuko
ditugu: *sexu egunsentziak*, *Izar mal-
koak, eta ni zer? Arriskupean*, *Dorre-
te zaharreko misterioa...*

Askotan bukaerako egoerara iris-
teko irrikitan egon gara, besteetan,
misterioaren korapiloa nola askatuko
den zain. Dena dela, asko gustatu
zaizkigu eta zuek ere irakurleok ani-
matu zaitezte. □



Fernando Morillo azpeitiarraren liburuak.

Ikasleen Txokoa kaleratzen da
Hernaniko ikastola eta ikastetxeek
Hernaniko Udalarekin eta
Hernaniko Kronikarekin egindako
elkarlanari esker. Datozen hilabe-
teetan jarraipena izango du.

"Ba al dakizue zer den sex-shop bat?"

Leire - Miren - Arnaitz
LANGILE IKASTOLA

DONOSTIAKO *Pitilin Gorriko* langileak, elkarritzetatu izan denak hain zuzen, adierazi duenez "sex-shop bat, porno edo aldizkari erotikoak saltzen diren tokia da. Aldizkariez gain, bibradoreak, panpinak, bideoak... ere saltzen dira". Gainera, denda honetan kabinak ere baditugu pelikulak bertan ikus-teko.

Donostiako "Pitilin Gorri" sex-shopsa Amaran dago, Pescadores de Gran Sol kalean. "Orain dela bederatzitze urte hasi ginen lanean. Anaiaren ideia izan zen. Lehenengo Oiartzunen jarri genuen eta ondo zihoa gunez hiriburura etortzea bururatu zitzagun". Denda hone-tara sartzea debekatua dute adin

"Sex-shop bat, porno edo aldizkari erotikoak saltzen diren tokia da. Bibradoreak, panpinak, bideoak... ere saltzen dira".

txikikoek "A bai, hori seguru, denak 18 urtetik gorakoak, eta handik aurrera edozein adinetako jendea etortzen da, eta gainera ia beti mutilak, neskak oso gutxi".

Denda txikia da eta baita ilun samarra ere. "Jendea nahiko lasai sartzen da, baina, badaude batzuk beraien urduritasunak gainetik kendu ezinik ibiltzen direnak ere". "Aparailu eta beste gauzen funtzi-

namendua nahiko erraza da eta ez da beharrezko azaltzea, gehiago galdetzen dute zein den onena edo gehien saltzen dena". "Normalean jendea erostera badator, bakarrik etortzen da, baina, saltseatzeria etortzen badira, taldean etortzen dira".

Lan hau hasieran nahiko gogorra egin zitzaiola aitortu digu. Hemen hasi zenean jendearekin komunikatzea kosta egin zitzaiotz baina azkenean "lortzen duzu". Jendeak iritzi ezberdinak ditu gai honen aurrean: onak eta txarrak. Lan hau gustuko duen galdu dio gunean "ondo dago" erantzun digu zeren "hemendik ateratzen banaiz ez dago aparteko gauza handirik aukeratzeko".

Jendeak gauza hauetarako, lotsa edo urduritasuna sentitzen du eta *Pitilin Gorriko* arduradunak azaldu digunez, "beti esaten dute oparitzalet erosten dituztela. Kar kar kar! Baina ez dute egia osoa esaten, ez horixe!" Lehen aipatu dugunez, gehienek kalitate oneko produktuak zein diren galdetzen dute. Horrek eragozpen bat du, geroz eta kalitate hobea orduan eta garestiagoak direla, baina, honek ez du esan nahi merkeak edo merkeagoak txarrak direnik. Aparailuak, gehienbat, gabonetan saltzen direla azaldu digu eta baita ezkontz garaietan ere, zeren ugarien saltzen dena bibradoreak eta ezkontz despedidetako gauzak dira.

Hernanin pasteleria

Hari honi eutsiz, gure herrian, Hernanin, badugu pasteleria ero-tiko bat "Pastelería Erótica Fernando". Bertan ezkontz despedidetako, bromak egiteko... pastelak egiten dituzte besteak beste. Orain dela 40 urte oraingo ja-bearen aitak pasteleria bat ireki zuen Erreenterin. Pastel erotikoak egitea berandugo etorri zen eta ideia hori Estatu Batuetatik hartu zuten, orain 14 urte. Hernaniko denda berria da, bi urte besterik ez ditu, eta hona kasualitatez etorri ziren, pabeloi bat behar zuten eta hemen berriak egiten ari zirenez, hauxe aukeratu zuten. Pasteleria honetan zer egiten duten galdu dio gunean hala esan

"Bi pasteleria mota egiten dira hemen: artisau eta erotikoa".

digu bertako oraingo jabeak: "bi pasteleria mota egiten dira hemen, alde batetik artisau eta bestetik erotikoa. Bien artean da-goen ezberdintasuna, zera da, bigarrengoa, forma erotikoak dituztela, zakilik, ipurdiak, aluak... Batzuetan formak guk asmatzen ditugu eta bestetan jendearen ideiak hartzen ditugu kontuan". Pastel erotikoak gehien bat ezkontz garaian saltzen direla gaineratu digu, otsailetik urrira bitarte. Hemen ere ez dira nolanahiko prezioak, 6, 20, 35, 57, 75, 110 arte. Erosteko bi modu daude "bai enkarguz edo bai hona etorrita. Baina, guk enkarguz egitea gomendatzentz dugu, beti ez dugulako dena prest edukitzentz". □

Orriaren egileak:



Alba Gonzalez, Miren Zubillaga, Leire Lucas, Arnaitz Lasarte, Leire Osa, Itsaso Uzkudun, Maider Gonzalez.

Bitxikeriak

Leire Osa eta Itsaso Uzkudun

LANGILE IKASTOLA

PLAZA BERRI LEHEN ETA ORAIN



XX.mendearen hasierako azoka egun bat Plaza Berrian

Feri Plaza, Foruen Plaza, Plaza Berri

KAXKO Zaharrean dago kokatuta, Kale Nagusiaren eta Kardaberaz kalearen artean. Plaza honen izena gutxienez 1897ko urtarilaren 3ko da, baina, orduan Feri Plaza izenez ezagutzen zen. Garai batean, azoka egiteko erabiltzen zen, baita tren geltoki moduan ere. 1905ean Foruen Plaza izena eman zioten. Gaur egungo izena 1988ko martxoaren 29an Hernaniko Udalaren bilkura batean jarri zitzaien. □

DINOSAUROEN AZTARNAK



Dinosauro haragi-jale baten aztarna.

Dinosauro aztarnak Munillan

D.B.H 1. mailakoak dinosauro aztarnak ikustera joan ginen. Aztarnategiak Munillan eta Encison daude (Errioxa). Izenak "Valdecevillo", "Peñaportillo" eta "Barranco de la Canal" dira. Bertan, hainbat dinosauroren aztarnak ikusten dira eta beren isatsena ere bai. Hauei guztiei buruz informazio panelak daude eta datu interesgarriak ematen dizkigute. Estatuak ere badaude, eta zein itxura zuten ikus dezakegu. Argazkiak ateratzeko leku aproposa da, eta bidaian joateko ere bai. □